


BURUKETAK

- Egizu eragiketak paper batean eta idatzi emaitzak laukitan,.

Geltoki batean 930 lagun zeuden. Tren bat iritsi da eta handik 210 lagun jaitsi dira. Ondoren, bi tren abiatu dira: batek 185 lagun eraman ditu, eta besteak, 206 lagun. Zenbat lagun daude orain geltokian?



lagun daude geltokian.

Biltegi batean 1.210 irin-zaku zeuden. Kamioi batek beste 375 zaku ekarri ditu, eta beste kamioi batek, berriz, 562 zaku eraman. Zenbat zaku daude orain biltegian?



zaku daude.

Oporraldian, familia batek 7.900 € gastatu ditu hegazkin - txarteletan, eta 3.780, hotelean. Dena ordainduta, 975 € geratu zaizkie.

Beraz, zenbat diru zuten hasieran, oporrak hasi aurretik?

Zenbat gastatu dute guztira?



€ zituzten hasieran.

€ gastatu dituzte.

Taberna batean 125 pintxo egiten dituzte goizetan, eta 176 pintxo, arratsaldeetan.

Zenbat pintxo egiten dituzte egunean?

Eta astebetean?



egiten dituzte egunean.

egiten dituzte astebetean.